BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4397

EBAZPENA, 2012ko irailaren 17koa, Giza Eskubideen zuzendariarena, «Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Babesteko Programaren» deialdia bete gabe uzten duena.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2012ko apirilaren 30eko Ebazpenaren bitartez (2012-05-21eko EHAA, 98. zk.), 2012ko ekitaldian Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Babesteko Programan sartuko diren pertsonak hautatzeko deialdia egin eta hautaketa horren prozedura arautzen da.

Deialdi horretan, 2012-04-30eko aipatu aginduko 3.2 artikuluan zehaztutako epearen barruan, ez da jaso kandidaturarik.

Eta esandakoaren ondorioz, eta Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Babesteko Programa arautzen duen Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, honakoa hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «2012ko ekitaldian, Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Babesteko Programaren» deialdia bete gabe uztea.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Justizia Sailburuordetzan, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera; hala agintzen da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluan eta hurrengoetan (Lege hori, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legaz aldatu zen).

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 17a.

Giza Eskubideen zuzendaria,
INÉS IBÁÑEZ DE MAEZTU IZAGUIRRE.